

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 1,65 milioi euro eman dira bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako programetarako

*Enpleguaren sustapenari, talde ahulen sustapen sozialari eta alokairuko etxebizitza bat eskuratzeari lotuta daude*

Osteguna, 2016.eko ekainak 16

Nafarroako Gobernuak 1,65 milioi euro eman ditu enplegua sustatzeko, talde ahulenen sustapen sozialeko eta etxebizitza bat eskuratzeko programak finantzatzeko; gizarte-bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonentzat dira.

Lehenengoarekin ([767.034 euro](#)), erakunde sozialek garatutako komunitate-programak finantzatzeko dira, eta bazterkeria-egoeran edo egoteko arriskuan dauden 470 bat langabek baliatu ahalko dituzte (gizarteratzeko errentaren hartzaileak batez ere). Diru-laguntza horien bidez egingo diren kontratazioak % 34 igoko dira aurreko urtearen aldean.

Deialdi honek bi modalitate ditu. Haietako batean 394.260,20 euro eman zaie 340 pertsonarekin proiektuak egingo dituzten zazpi erakunderi, haietatik erdia baino gehiago emakumeak dira eta oinarritzko gizarterbitzuen, Iruñeko auzoko unitateen eta ekimen sozialeko beste erakunde batzuen bidez sartuko dira.

Bestearen bidez, 372.773,80 euro, gizarteratzeko errenta jasotzen duten 41 pertsona sei hilabetez kontratatuko dituzten zortzi erakunderi emango zaizkie. Babes teknikoa izango dute ere, prestakuntza-jarduera okupazionalak edo lanaren aurretiazko trebetasuneko jarduerak eta monitore baten ikuskapenarekin.

### Sustapen soziala

Bigarren deialdiak ([650.692,97 euro](#)) 17 erakunde sozial finantzatzeko ditu, eta haien helburua talde ahulenen inklusioa edo sustapena izango da.

Zehazki, ekimen horiek honako hauekin lotuta daude: bazterkeria-egoeran dauden pertsonen okupazio-zentroetan duten partaidetza, larrialdi sozialeko pisuetan ostatu hartzea, elikagaien beharrak, prostituzioan aritzen diren pertsonen laguntza sozial espezializatua ematea, ijitoen sustapen soziala eta presoan edo preso horien jarduera sozioedukatiiboak.

Modalitate horietarako finantzaketa % 71 handitu da iazko urtearekin alderatuz.

### Gizarteratzeko etxebizitza

Azkenik, Nafarroako Gobernuak, hirugarren deialdiaren bidez, bost erakunde laguntzailek egindako gizarteratzeko etxebizitza-programaren

kudeaketa finantzatu du ([236.723,74 euro, guztira](#)).

Zenbateko hori aipatutako programa kudeatzeko iaz eman zena baino % 18,36 gehiago da. Aurten 50 jarduera berri diruz lagunduko dira, eta azken bost urteotan programan sartutako familiak jarraitzeko 170 esku hartze.

Jarduera horiek bideratuta daude, bizitegi-bazterketagatik kanpo geratu izanagatik larriki kaltetu diren familiak Nasuvinsa enpresa publikoaren alokairuko programan sartzeko aukera erraztu ahal izateko. Azken bost urteotan programa horretan sartutako pertsonen laguntza soziala izatea ere jasotzen da.

Gizarteratzeko alokairuko etxebizitza-programako higiezinak Iruñerriko hiri-sare guztian zehar banatuta daude eta, 2010etik aurrera, Tuterakoan. Guztiz normalizatutako etxebizitzak dira, eta egoera onean daude. Haien alokairua hilean 400 eta 600 euro artekoa da azaleraren arabera, eta maizterra den familiak alokairuaren % 90eko diru-laguntza jasotzen du lehen urtean. Gainerako urteetan kuota berrikusi eta familia-unitatearen diru-sarreraren mailari egokitzen zaio. Kontratuaren hasieran, familia maizterrak benetako alokairuaren pareko fidantza bat ordaindu behar du, gehi oinarrizko zerbitzuak abian jarri izanagatik sortutako gastuak.